

TOKIKOM

2010eko uztaila | 95. zenbakia

ailkar!

txorierriki



Kirola, letra **HANDIZ**



Larrabetzuko Udalak
jai herrikoietarako eta
deialguen herrikoietarako gartatzen



Larrabetzuko Udalak

Ono paze Andra
Mori eta Egeleriak

kukubiltzo

kukubiltzo.com
Egileria: Kukubiltzo (www.kukubiltzo.com)

Larradent Poliklinika

Antolatzen ditugunak: 5 urteko 3-4 urteko eta 4 urteko 3-4 urteko
neurriak ditugunak eta 1 urteko 3-4 urteko

- ✔ Dietetika
- ✔ Podologia
- ✔ Odontologia
- ✔ Plastiologia

IRUSTA TABERNA

OGINEROKO MENUAK
eta GAUZ
MUSIKA ETA PARRANDA

LARRABETZU
Tel. 94 455 84 47

Maria's Pub

ONDO EROSI

JANARIA + FRUTA

EROSIEN ERABAKI ERABAKI
DEIAITZEN

94 455 84 47

Andra (Rural), 12. kateak - 48103 Gernika-Lao

Jai herrikoietarako
eta deialguen herrikoietarako gartatzen

arrekikili

Larrabetzuko euskara elkarteak



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Maripi Agirre, Sondika-Goiri argazki taldea, Jon Goikouria, Ixone Zubieta, Ines Serrano, Oihana Astobeta, Lurdes Etxebarria, Belen Gana eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000


Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO LAURAKURTA
GOSTERNO VASCO

KULTURA BAILA
I. EUSKO LAURAKURTA I. EUSKO LAURAKURTA



diruz lagundutako aldizkaria



12 Elkar argitaletxea

22 Larrabetzuko jaiak

34 Sondikako Gizon probak

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 11 Iruditari... Guk ere badakigu gozatzen!
- 12 Gurean izan da... Elkar argitaletxea
- 14 Gaztea eta... Alaitz Ziordia
- 16 Izarren distira! lehiaketa
- 18 Derio, ping-pongaren hiribura
- 22 Larrabetzuko jaiak
- 25 Lezamako jaiak
- 29 Zamudioko balkoirik ederrena
- 30 Elkarrekin/Taldeak... Sondikako Kirolzaleak
- 32 Txorierri ezagutu... Oloste jauregia
- 34 Teknologia...
- 35 Aikorrizketan... Zipirienea kafetegian
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda





JUAN LUIS GOIKOETXEA
(Euskaltzain urgazlea)

Badabil Koikili egiten kili-kili. Horretarako, Txorierrira hurreratu jaku 2010ean. Berton geratzeko? Kili-kili berbea euskal letretara Zamarripa idazle sondikarrak jaso eban, *Kili-Kili* liburua 1930ean argitaratuta. *Kili-Kili* aldizkaria, oster, Jose Antonio Retolazak argitaratu eban 1966an. Dinost –Retolazak berak– Azkueren hiztegitik hartu ebala Kili berbea. Eta aldizkariko lehen alea Derioko Seminarioan argitaratu barri, esan eutsala Karmelo Etxenagusiak:

Koikili, kili-kili

–Zamarripagandik hartu dozu izena, ez?

–Ene! Ez naz konturatu –Retolazak.

Kontua da, oraingo Koikili txorierritar-tua, Zamarripa sondikarra eta Derioko Seminarioa haran bereko dirala.

Koikili Lertxundi eliteko –frantseseko berbea da– jokalaria ezkerre da Athleticean. 2004 ezkerre dihardu ITZARRI aholkularitza enpresan euskara kiroletan bizibarritzen. Urteetan Retolazaren *Kili-Kili* aldizkariak euskarara erakarrirako milaka gazte Euskal Herrikoak era modernoan euskaltzazetzen.

Euskararen Legeak, 1982koak, bete dau mende laurena, nahiko denpora jakiteko irakaskuntzak norainoko indarra daukan gazteria euskarazteko. Konturatu gara urteotan, euskarazko irakaskuntza ezinbesteko dogula, aurrerapen itzelak egin doguzala, baina ez dala nahiko. Ez gaitezan koplatan ibili!

Irakaskuntzan aurrerapen itzelak egin

doguz ze, adibiderako, EGA azterketa 300.000 bat herritarrek egin dau eta 80.000k gaintitu –hau Joseba Butronek dakitzu ondo–.

Baina irakaskuntza ez da nahikoa. 28 urteotan arlo jakin baten ez dogu aurreratu, euskararako bizilekuak sortzen, eregi-ten. Gure herrietan, zein leku daukagu euskara hutsean egiteko eta zein erdaraz? Zein esparru? Zein egoera komunikatibo? Programatuta daukagu ala hor konpon itxita erdarak jan gagan?

Dana eskolaren pentzuan? Ezta! Horretara jatorku Koikili: “Umeak eurei gustatzen jaken arloan –futboleant– naturaltasunez euskara erabili dagien, ez derrigorrez”. Jatorku; futboleko izarraren distiraz gazteria erakartzen, behinola Retolazak *Kili-Kili* aldizkariagaz egin gaurkotzen, “euskal kontzientzia itzartzten”, eta itzartu be Zamarripa abadeak dinoskun eran: “Kili-kiliak, geyenetan, iratzartzeko eta baéak eragiteko izaten dira”.

Koikili taldean dala, kili-kolo ibiltari itxirik, egin deiogun euskaldunari kili-kili!

Jaiak eta burokrazia

Urte guztian zehar dauden mota guztietako jaiak antolatzen boluntarioak ibiltzen gara, jai batzordeetan antolatuta. Aitortu behar da lan ederra egiten dela, debalde, musutruk, doan. Jaietan giroa pizteko, ekitaldiak antolatzen, txandetarako jendea lotzen, lehiaketak egiten eta abar espezialistak izan behar. Baina azken aldion beste zeregin batzuekin ere bagabiltza: paperak egiten.

Gero eta paper gehiago bete behar ditugu. Gero eta baimen gehiago, gero eta eskakizun gehiago. Gastu guztiak faktura bidez justifikatu behar ditugu. Zaila da faktura bidez den-dena zurtzea. Alde




IXONE ZUBIETA
(Irakaslea)

batetik, boluntarioen lana ezin da justifikatu, eta, bestetik, jaietan parte hartzen duten asko ez dira profesionalak, ez daude altan emanda autonomoetan.

Udalek auzoetako jaiak goraipatzen dituzte, baina gero benetan arazoak eta paperak baino ez ditugu topatzen. Badakigu Udalei ere gero eta traba gehiago jartzten dizkietela, eta guk ez dugu nahi legalak ez diren paperak onartzea, baina gauzak ondo eta erraz egiteko bidea ez zaigu erakusten, eta jaiak antolatzearen lana erraza ez bada, imajinatu ulertzen ez dugun burokrazia aplikatzeko lan estrak. Parte hartzeko gogoak kendu egiten da.

Paper gutxiagorekin, jaiak hobeto antolatzeko asti gehiago edukiko genuke, ekitaldi hobeak, ideia berriak, eta abar.





Pintxoa euskaraz eskatu eta ahoz gozatu!

Txorierriko Mankomunitateak "AhoZgozatu" kanpaina jarriko du martxan irailan, ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko. Kanpaina irailaren 19an egingo da, 12:30etik 15:00etara, eta kanpaina parte hartzen duten tabernetan merkeago jarriko dituzte pintxoak.

Txorierritarrok pintxoak euskaraz eskatu eta gozatu baino ez dugu egin beharko. Izan ere, pintxoak euskaraz eskatzen badugu, hura merkeago izango dugu. Gainera, pintxoari eusten dion zotzean txartel bat egongo da atxikia, pintxoaren osagaiak zeintzuk diren azalduko duena, dena euskara hutsean.

Beste alde batetik, tabernetan txartelxoak egongo dira eskuragarri, eta nahi duenak han markatu ahal izango du,

bere ustez, zein izan den pintxorik onena. Parte-hartzaile guztiak sari baterako zozketa batean sartuko dira.

Kanpainari amaiera emateko, abenduan "Txorierriko pintxorik onena" saria banatuko da Euskararen Eguneko egitarauaren barruan. Final handia egingo da eta bertan herri bakoitzean irabazle suertatu diren tabernak arituko dira lehian.

Kanpaina hauek hartuko dute parte: Adarve, Batzokia, Amaiketako, Mendia, Rockefeller, Txoria eta Udondo, Derion; Etorki eta Gazteleku, Larrabetzun; Lejarrene eta Oxangoiti, Lezaman; Gure Etxea, Loiu Hotela eta Batzokia, Loiu; Egarki, Batzokia eta Tindaya, Sondikan; eta Ama3 eta Errota, Zamudion.

Derioko osasun zentroa, itxita asteburuetan

Osakidetzak erabaki du lehen mailako arretako zerbitzu sanitarioen eskaintza asteburuetan orekatzea eta homogeneizatzea. Azaldu duten bezala, neurri horrek sistemaren jasangarritasuna bermatzea du helburu. Erabakiaren ondorioz, Derioko osasun zentroa itxita egongo da zapatu, domeka eta jaiegunetan, eta txorierritarrok etengabeko atentzio gunetaraino hurbildu beharko gara. Atentzio guneak hauek dira: Algorta (Bidezabal, 30), 08etatik 24:00etara; Areeta (Bidebarrieta, 10), 24 ordutan; Mungia (Andra Mari, 1), 24 ordutan; eta Gorlizeko ospitalea (Astondo ibil-toki, 1), 24 ordutan. Gainerako osasun-zerbitzuak (larrialdiak, etxeko atentzioa eta ospitaleko larrialdiak) orain bezala mantenduko dira aste-gunetan, zapatuetan eta domeketan.

Udaz blai

Aurten 1.100 ume inguruk eman dute izena Txorierrin urtero antolatzen diren udalekueetan: 275 ume, Sondikan; 155, Loiu; 358, Derion; 150, Zamudion; 141, Lezaman; eta 80, Larrabetzun. Udalekuak oso arrakastatsuak dira gure gaztetxoan artean, eta urterik urte joan dira sendotzen. Izan ere, lagun berriak egiteaz gainera, etxeko txikiak bertan hamaika aukera dute ondo pasatu eta ikasteko. Irteerak, tailerrak, lehiaketak, jolasak... udalekuek eskaintzen dizkieten ekintzak anitzak dira.

GAMINIZ
JATETXEA

Telefonoa: 944 31 1122
email: gaminiz@gaminiz.com

Reservatu zure hurrengo ikaragaitza
Jai Egunkariak, Aurrerik
Laguntza eta Baituzkoak

www.gaminiz.com

Astakerako ikaragaitza 11.000 eta 12.000 €
Laguntza: 11.000 €
Telefonoa: 944 31 1122
Fax: 944 31 1122
www.gaminiz.com

SANTI MAMI
Laguntza: 11.000 €
Telefonoa: 944 31 1122
Fax: 944 31 1122

AYUNTAMIENTO DE DERIO
SERVICIO DE EDUCACIÓN

ANTE EDERAK, ESKULANAK, E.A.

JEKAK, MARIKAK, JANTIAK, JANTOIAK

Proiektuak, ikaragaitzak, ikaragaitzak,
programa, ikaragaitzak, ikaragaitzak,
programa, ikaragaitzak, ikaragaitzak

Telefonoa: 944 31 1122
Fax: 944 31 1122
www.gaminiz.com



Bidaia Lanzarotera

Loiun, bidaia antolatu dute, irailan Lanzarotera joateko. Bidaia irailaren 11tik 18ra artekoa izango da eta abuztuaren 6an amaituko da izena emateko epea. Izen-ematea telefono honetara deituz egin behar da: 94 471 23 10. Parte-hartzaileek Lanzarote Village bost izarreko hotelean hartuko dute ostatu. Bidaiak 552 euro balio du pertsona bakoitzeko, dena barne.


Produktu ekologikoak, Elotxelerrin

Uztailan, Elotxelerriko azoka ekologikoa egin zen bosgarren aldiz, Loiun. Bertan Euskal Herriko eta alboko herrietako hainbat ekoizle ekologikok hartu zuten parte, eta, besteak beste, honako hauek jarri ziren salgai: olioia, ogia, barazkiak, gazta, txakolina, landareak, ardoa, txakolina eta aloe vera. Txosna bat ere ipini zen eta taloa, txerriak eta sagardoa dastatzeko aukera egon zen bertan. Beste alde batetik, eta aurreko edizioetan bezala, Udalak ardo, sagardo eta pintxo ekologikok banatu zituen doan.


Lezamako mendi ibilaldian izena ematea zabalik dago

Abuztuaren 29an, "Lezamako mugetatik" mendi ibilaldia eta lasterketa egingo da bosgarren aldiz. Ekimena hauen artean antolatu da: Lezama Bizirik auzo elkarte, Gailur mendi taldea, Basobaltz jai-batzordea, Goitioltzako jai-batzordea, Gurasoen Elkartea, Zorritzketan euskara elkarte, Ekidazu abesbatza eta Oxangoiti kultura elkarte. Izena ematea zabalik dago, eta webgune honetan egin behar da: www.lezamakomugetatik.com.

Aurreko edizioetan bezala, ibilbideak 25 kilometro izango ditu. Mendi ibilaldian hiru kategoria egongo dira: orokorra, beteranoak eta Lezama; eta lasterketan, kategoría bakarra. Horrezaz gainera, modalitate bakoitzean emakumezkoen kategoría eta gizonezkoen kategoría izango dira. Lezamako mendi ibilaldia eta lasterketa Bizkaiko Federakuntzaren Mendi lasterketen egutegian sartu da aurten. Iaz 650 lagunek hartu zuten parte ekimenean.



Informazio Pertsona - Informatika 2008
HOTELERIA (HOTELERIA)
Informazio: 94 471 23 10
Fax: 94 471 23 11
e-mail: info@hotelertxakolina.com
e-mail: reservas@hotelertxakolina.com





Sondikak uholdeak prebenitzeko neurriak hartzeko eskatu dio EJri

Ekainaren 16an barra-barra ari zuen euria. Derion, esate baterako, 112 litro ur hartu ziren metro karratuko. Euritearen ondorioz gainezka egin zuen Asua ibaia eta arazo larriak izan ziren Sondikan, Loion, Derion eta Zamudion. Hala ere, egun horretan bizi genuen egoera ez zen berria txorieritarrontzat, aurretik ere euriteak antzeko arazoak sortu baitu gurean. Horren haritik, Sondikako Udalak eskaera bat egin dio Eusko Jaurlaritzari, uholdeei aurre egiteko neurriak har ditzan. Azaldu duten moduan, urak Ola, Sangroniz eta Torreta Bekoa hartu zituen Sondikan, hango langileei eta herritarrei oso eragozpen handiak sortuz.

Uren legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio uholdeak prebenitu eta ho-

riei aurre egiteko neurriak hartzea. Era berean, ibaien bazterrak eta ubideak egoera onean daudela bermatu behar du. "Asua ibaia egoera horretan dago eta ibaia bideratzeko egitasmoa zein hori garatzeko tramiteak eta gestioak egitea Eusko Jaurlaritzako ardurak dira". Hori dela eta, Sondikako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio hiru hilabeteen buruan Asua ibaiko beheko tartea bideratzeko lana berriro har dezan. Horrezaz gainera, proiektuari eta horren egiteari lotuta dauden ekintza materialak, juridikoak eta ekonomikoak URA Uraren Euskal Agentziari emateko eskaera egin dio. "Eta Sondikan dauden Asua ibaiko bazterrak zein Pre-guntegi eta Torreta bekoa errekek udan garbi ditzan".


Trenbide-pasagune bi kendu dira Loion

Euskal Trenbide Sareak Deustutik Lezamarako tren-lineako pasagune bi itxi ditu: Artetxekoa eta Olarrakoa. Pasabide biak Loion daude, eta hartutako neurriak ibilbidearen segurtasuna bermatzea izan du. Pasabideok C motatakoak dira; hau da, autoek eta oinezkoek erabiltzen zituzten, eta hesi automatikoez, seinale finkoez, balizez eta argi zein hots-seinalez zeuden hornituta. Artetxeko trenbide-pasagunearen ordez Larrondokoa erabili beharko da hemendik aurrera; eta Olarrakoaren ordez, Formetakoa. Azken sei urteotan, 11 trenbide-pasagune kendu dira Deustutik Lezamara tren-linean, eta laster beste bi itxiko dira Derion.

Gazte eguna 2010, Larrabetzun

Uztailaren 31n, zapatuan, Gazte Eguna ospatuko dute Larrabetzun. Ekimena Hori Bai gazteak antolatu du. Goizeko 10etatik aurrera hainbat ekitaldi egongo dira: txistulariak,

trikipoteoa, herri-bazkaria, antzerkia, olinpiadak eta kalejira. Kontzertua talde hauek emango dute: Su ta gar, Sexty sexers eta Skatu.



ASESORIA
Luz. Ferrazola Aguirre, I. J.

Melky B. Garmendia, I.
Tfno: 94 472 22 14 - fax: 94 471 01 18
48970 SONTXA (Bizkaia)

DERIO FISIOTERAPIA-ZENTROA



- Tratamendu guztiak:
 - Lurkuntza fisioterapia
 - Masaj terapeutikoa
 - Kinesioterapia
 - Ginekologia eta geroa-espantua
- 30 urteko esperientzia
- Irteerak onartzen

Ginekologia
096-21108

Arrieta 10, 1.º | 48940 SONTXA (Bizkaia) | 94 472 22 14 | 94 471 01 18

San Bartolome (Zamudio)

Abuztuaren 23an, astelehenean

- 17:00: Bolandera nagusia.
- 17:00: Mus Txapelketa.
- 20:30: Txitxi-burruntzia eta ardoa, doan. Ostein, erromeria Dantza alai taldearekin.

Abuztuaren 24an, martitzenean

- 12:30: Meza, ermitan.
- 12:30: Bakailaoa pil-pilean Txapelketa.
- 12:30: Auzoko nagusientzako omenaldi-kopaua, trikitilariak girotua.
- 13:30: Bakailaoa aurkeztea.
- 19:00: Idi-probak. Ostein, erromeria Dantza alai taldearekin.



- 01:00: Txokolatada eta gau-dantza.

Abuztuaren 25ean, eguaztenean

- 12:30: Meza, ermitan.
- 13:00: Umeentzako jolasak, trikitilariak girotuak.
- 19:00: Zaldi desafioa.
- 20:00: Patata tortilla Txapelketa. Ostein, erromeria Dantza alai taldearekin.
- 00:30: Mozorroak.
- 01:30: Txokolatada, gau-dantza eta jaien amaiera.

Jai-jai!

Txorierritarrok ez dakigu geldirik egoten. Abuztuan eta irailean jaiak ospatuko ditugu auzo eta herrietan. Uztaleko alea itxi orduko, jai-egitarau hauek eskuratu ditugu. Adi egon, gurean jai gehiago egongo dira-eta.

Santimami (Zamudio eta Derio)

Abuztuaren 16an, astelehenean

- 12:00: Bolandera nagusia.
- 14:30: Herri-bazkaria.
- 18:00: Umeentzako jokoak.
- 21:00: Txitxi-burruntzia
- 22:00: Gau dantza, Arizgoiti taldearekin.

Abuztuaren 17an, martitzenean

- Puzgarriak, egun osoan zehar.
- 10:00: Kalejira, txistulariak girotua.
- 12:00: Meza, ermitan.
- Eguerdia Bertoko taldeak girotuko du.
- 14:00: Sukalki Txapelketa.
- 16:30: XV. Mus Txapelketa.
- 17:30: Umeentzako tailerrak.
- 20:30: Tortilla Txapelketa.
- 21:00: Sardina-jana.
- 22:00: Gau-dantza, Arizgoiti taldearekin.
- 00:00: Sorgina erretzea eta txokolatada.

Abuztuaren 18an

- 12:00: Meza, ermitan.
- 13:00: Omenaldi-kopaua, nagusientzat.

Irailaren 2an, eguenean

- Puzgarriak
- 11:00: Txupina.
- 12:00: Meza eta auzoko nagusientzako omenaldia.
- 17:00: Mus Txapelketa.
- 20:00: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Dantzaldia, Txinparta taldearekin.

Irailaren 3an, barikuan

- 12:00: Meza. Ostein, euskal kantak.
- 13:00: Dantzen agerraldia, Hiru bat taldearekin.
- 20:00: Idi probak.
- 21:30: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Dantzaldia, Txinparta taldearekin.

Sandoni (Zamudio)





Santa Kurtze (Sondika)

Irailaren 10ean, barikuan

-00:00: Konzertuak: Bi gira + Oh happy day.

–02:00: Kontzertua: Amaier.

Irailaren 11n, zapatuan

-10:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistulari taldearen eskutik.

–10:30: Marrazketa eta Pintura V. Lehiaketa (hiru urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat).

–14:00: Sariak ematea.

–17:30: "Santa Kurtze" I. Futbol Torneoa:
Sondika eta Apurtuarte.

-20:00: Dantza ikuskizuna, Erdizka laueta
taldearen eskutik.

-23:00: Kontzertua: Malos tratos.

–00:30: Kontzertuak: The Bon Scott Band + Akerbeltz.

Irailaren 12an, domekan

–10:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistulari taldearen eskutik.

-10:30: Haur eta gazteentzako jolas-parkea.

–18:00: Dantzen agerraldia, Gorantzaileak taldeak antolatua.

Irailaren 14an, astelehenean

–10:00: Kalejira, Trikitixa Xabierren eskutik.

-12:30: Meza eta aurrekua.


–18:00: *Zirika Zirkaos* haurrentzako ikuskitzuna, *Zirika Zirkus* taldearen eskutik.

Txorierri, ezinezkoa da hobeto ibiltzea!

Aurten Euskal Herriko Harri-zulatzaileen Liga antolatu da hamabigarren aldiz. Ligari amaiera emateko, proba bi baino ez dira falta: bata abuztuaren 28an izango da Bilboko Aste Nagusian; eta bestea, irailaren 4an, Trapagaranen. Txorierri harri-zulatzaileen taldeak lan ezin hobea egin du liga osoan. Izan ere, egin diren zazpi probetatik sei irabazi ditu, eta bestean bigarren postua eskuratu du. Gainera, birritan hautsi dute ligako errekorra. Beraz, errekor hori Txorierri taldeak du gaur egun: 23 zulo eta 48 mm.

Aurreko urtean bezala, Txorierrri sailkapenaren buruan dago lehenengo proba egin zutenetik. Bigarren sailkatua Burdin Gazteak Ortuellako taldea da, eta hari 8 puntuko aldea ateratzen dio. Hirugarren sailkatua Kabiezes Santurtziko taldea da, eta hari 13 puntuko aldea ateratzen dio. Ondorioz, gure mutilek aukera handiak dituzte, liqa berriro irabazteko.

Beste alde batetik, Iñigo Aurrekoetxea eta Aitor de la Concepción Binakako Txapelketaren finalean arituko dira. Txorierriko bikoteak txapelketako markarik onena du: 17 zulo eta 24 mm.



Aukera baten bila



Uztailean ekitaldi berezia egin zen Bilbon, Arene derioztarrari eta haren familiari elkartzuna adierazteko. Urribitar-teko zabaldegian ehun pertsona batu ziren. Hiru minutu mugitu barik eman zituzten, eta ekitaldiaren amaieran puztukiak askatu zituzten zerura. Arenek haurren zeroid olipofusiziosis neuronal berankorra gaixotasuna du.

Irailean, Gure señeak Derioko elkarteak aurkeztuko da jendaurrean. Herrian zazpi ume daude gaixotasun arraroa edo larria dutenak, eta elkarte umeen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko sortu da. Horrezaz gainera, umetxo eta familiekiko solidaritatea bultzatzea ere badu helburu.

Derioko kultura eta kirol taldeek eta Udalak bat egin dute Gure señeak elkartearekin, eta irailarako ekitaldi sorta zabala antolatu dute. Horrela, hilaren 10etik 12ra bitartean kirol ekintzak izango dira nagusi Derion: mendi ibilaldia, saskibaloia, pilota partidak, eta spinning-maratoia, esate baterako.

Beste alde batetik, hilaren 17an eta 18an kultura ekitaldiak egingo dira: antzerkia edo kontzertuak, banaka batzuk aipatzearen. Ekitaldiotan biltzen den dirua Gure señeak elkarteari emango zaio, umeen gaixotasunen ondorioz familiek dituzten gastuak arintzen laguntzeko. Era berean, eskuorriak banatuko dira, elkartearen nondik-norakoak eta bazkide egiteko erak azalduko dituztenak.

Informazioa:

52 PK, 48160 Derio

info@gureseneak.org

www.guresenak.org

Irailaren 10ean, barikuan

–18:30: Kalejira.

–19:00: Gure señeak elkarteak aurkezteak.

–20:00: Areto-futboleko maratoia (federatua). Adarvek eta Derio-Pozgarri taldeak antolatua.

Irailaren 11n, zapatuan

–10:00: 3x3 futbola eta kirol-jokoak, Arteaga taldeak antolatua.

–11:30: Bizikleta-martxa, Derio zikloturista taldeak eta Euskaltel Fundazioak antolatua.

–12:30: Bizikleta-ginkana, Derio zikloturista taldeak eta Euskaltel Fundazioak antolatua.

–16:00: Tai-chiren erakustaldia, Doyan gimnasioaren eskutik.

–16:00: Xakea, Derio xake taldearen eskutik.

–18:00: Krosa, txikientzat.

–18:30: Krosa, nagusientzat.

–19:00: Erronka: txirrindularia, atleta-

Egitaraua

ren aurka. Txorierriko Korribilariak taldeak antolatua.

–20:00: Saskibaloia, Derio Saski taldearen eskutik.

–23:00: Spinning-maratoia, Derio Txiki AMPA taldeak antolatua.

–01:00: Areto-futboleko maratoia (federatua). Adarvek eta Derio-Pozgarri taldeak antolatua.

–01:00: Frontenisa, Atxiki taldeak antolatua.

Irailaren 12an, domekan

–10:00: Ibilaldia, Untza taldearen eskutik.

–10:00: Arku-tiroa, Gezi bide taldeak antolatua.

–11:00: Eskupilota, Atxiki taldearen eskutik.

–11:00: Jolasak, Derio Txiki AMPA taldeak antolatua.

–15:00: Indaba-jana.

Irailaren 17an, barikuan.

–21:00: Herriko musika taldeen kontzertua.

–22:30: Kontzertua.

Irailaren 18an, zapatuan

–11:00: Tiragoma Txapelketa, Tiragoma Bizkaiko elkartearen eskutik.

–11:00: Tailerrak eta jolasak.

–12:00: Pailazoak.

–13:00: Bertsolariak.

–13:30: Erromeria, Lainomendi taldearen eskutik.

–16:00: Skate eta patinen zirkuitua, Santzoka elkarteak antolatua.

–17:00: Umeentzako antzerkia, Tximintx elkartearen eskutik.

–17:30: Anne Monna, Oskola eta Karra-marroi umeentzako antzerkia.

–18:30: Poesia eta abestien emanaldia, Sutondoan elkartearen eskutik.

–19:30: Ipar-Alde abesbatza.

–20:00: Leioako Musika Bandaren emanaldia.



Zein atsegina den uda! Zein ondo gauden betebeharririk gabe! Esan eta egin. Horixe bera egin dute Larrabetzuko baserri bateko hiru txakurrek. Katuak oporretan daudela, lasai har dezakete arnasa; eta kafetxoaz gozatu leihotik begira dauden bitartean.

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
Sondika-Goiri argazki taldeko kidea

[illegible]

“Sorkuntzan ez dago krisialdirik”

XABIER MENDIGUREN ETA ANJEL VALDES | Elkar argitaletxearen kideak

Elkar argitaletxea erreferentzia da euskal liburugintzan eta musikagintzan. Izan ere, euskal egileen lanak plazaratzeaz gain, “gure kulturaren beharrak asetzen laguntzen” du 1975tik. Elkar Larrabetzun ekainean egin zen Literatura azokara hurbildu zen eta bertan euskal sorkuntzari buruz hitz egiteko aukera ez genuen alferrik galdu.

Xabier Mendiguren

t: Gaizka Eguskiza / a: Elkar

Zelan Literaturian?

Xabier Mendiguren: Ondo. Azoka finkatzen ari da bigarren urte honetan. Gero eta hobeto ikusten dut nik: antolamendua eta parte-hartzea primerakoak izan dira eta kezarik ez dugu. Denboraren poderioz, erreferentzia izango da Euskal Herri osoan, bai idazleentzat, bai argitaletxeentzat. Salmentak apalak dira, eta oraindik azoka ez da oso errentagarria, baina euskal kultura gizarteratzen du, eta horrek gure laguntza osoa merezi du.

Anjel Valdes: Azokek herrira ekartzen dute sormena, hau da, produktuak eta egileak. Gaur egun gero eta denda gutxiago dago eta azokek hutsune hori betetzen dute: produktuak gerturatzen dizkiete herritarrei. Euskal kulturarentzat oso onuragarriak dira azokak, gure publiko naturalarengana hurbiltzen garelako. Gure lanak ez du zentzurik publikorik ez badago.

Bideragarria da gaur egun euskaraz sortutakoa jorratzen duen azoka bat?

XB: Nik esango nuke baietz. Izan ere, oso ondo ari da funtzionatzen orain arte. Euskaraz egindako liburugintzan zein disko gintzan ekoizpen oparoa dago, bai kalitateari begira, bai kopuruari begira. Beraz, dudarik ez dugu azoka -eta ondorioz sor-

XB: “Denboraren poderioz, Literatura erreferentzia bat izango da Euskal Herri osoan”

AV: “Azokek produktuak -diskoak eta liburuak gerturatzen dizkiete herritarrei”

mena- bideragarria badela. Gure lana jendea horren jakinaren gainean jarri eta kulturara hurbiltzea da.

Osarriak dira Durangoko eta Larrabetzuko azokak? Onuragarria da euskal sormenarentzat biak egotea?

XB: Bai. Durangokoa masa-fenomeno bihurtu da, eta horretaz aparte, ospakizun erraldoia da. Hori ez da txarra, kulturarako zaletasuna galtzen ez den bitartean. Larrabetzuko Literatura garbiagoa da, hau da, jendea hara joaten da literatura, kultura eta euskal zaletasunarekin harre-



mana dutelako. Batak ez dio besteari ezer kentzen; elkarri aberastasuna ematen diote.

Zein egoeratan daude gaur egun euskaraz egindako liburugintza eta diskogintza?

XB: Krisi ekonomikoak sektore guztiak ukitzen ditu, zalantzarik gabe. Hala ere, liburugintzaren ikuspegitik sorkuntzan ez dago krisialdirik, hau da, egileek segitzen dute gauza berriak asmatzen eta argitaletxeok ere, ahal dugun neurrian, segitzen dugu liburuak eta argitaratzen. Salmentak apaldu egin dira, baina eutsi egin behar diogu ekoizpenaren eta sormenaren kalitateari.

AV: Gure herria eta gure merkatua txikiak dira. Gainera, kanpotik hainbat eta hainbat produktu etortzen zaizkigu eta lehia horri erantzuna eman behar diogu. Egoera ez da oso ona, baina diskoak grabatzen jarraitu behar dugu; bestela, oso zaila da talde baten lana hedatzea. Eta musika zabaltzea funtsezkoa da salmentak lortzeko. Ildo honi jarraituz, Internetek sekulako aukerak eskaintzen ditu, gaur egun komunikabide eraginkorrena baita. Baina etekina ez dugu ateratzen diskoak saltzeagatik, eta beste bide batzuk bilatu behar ditugu: esate baterako, zuzeneko kontzertu gehiago eman.

Zelan ikusten duzue etorkizuna?

XB: Etorkizuna geure eskuetan dago; ez dago inon idatzita. Egunean-egunean egiten dugunak bideratuko du etorkizuna. Ez dugu tarotera joan beharrik, egin behar duguna lan egiten jarraitzea da.

AV: Ni erabat baikor agertzen naiz. Nagusiak garenok mota guztieta-ko garaiak bizi izan ditugu. Merkatua ezin

da kontrolatu, baina hobetuko dela uste dut nik. Krisialdi larrian gaude murgilduta eta musika oso lagun ona da garai txarretan. Izan ere, kantarik adierazgarrienak egoera txarretan sortzen dira. Gure lana ez da saltzea, jendea motibatzea baizik. Elkar argitaletxeak katalogo oparoa du, eta etorkizunean ere horrela izan dadin etengabe egingo dugu lan. Izan ere, datozen belaunaldiak gozatuko dute katalogo horrekin. Horrela, guk uste dugu euskal nortasuna sustatzen laguntzen dugula.

Anjel Valdes



GALAISA
1. BERTSULUAK
941 424 04 05 - 941 417 70 01
Taldeko Bertsuak 11.7.2010tik

Goiri 78 s.l.
Zabaleria etxerako
Izardoa (Pto.)
Mendakoa (Gorbeia)
Mendakoa 1
94 433 25 13
94 433 26 01

LABORIO DE TACNIFICAR
LABORIO DE TACNIFICAR
LABORIO DE TACNIFICAR
LABORIO DE TACNIFICAR
LABORIO DE TACNIFICAR

EG
Eguzkiaren energia
Eguzkiaren energia
Eguzkiaren energia
Eguzkiaren energia
Eguzkiaren energia

ZABALDUNGO ESTANKEA
Zabaldunگو, zabaldunگو eta zabaldunگو
Zabaldunگو, zabaldunگو eta zabaldunگو
Zabaldunگو, zabaldunگو eta zabaldunگو
Zabaldunگو, zabaldunگو eta zabaldunگو
Zabaldunگو, zabaldunگو eta zabaldunگو

Polikultura Estetika
Polikultura Estetika
Polikultura Estetika
Polikultura Estetika
Polikultura Estetika

PIZAD ARGITZAKU
PIZAD ARGITZAKU
PIZAD ARGITZAKU
PIZAD ARGITZAKU
PIZAD ARGITZAKU

OBRAS Y REFORMAS
OBRAS Y REFORMAS
OBRAS Y REFORMAS
OBRAS Y REFORMAS
OBRAS Y REFORMAS

“Ausarta izan behar da nire diseinu

ALAITZ ZIORDIA | bitxi-diseinatzailea

Sormen handiko gaztea da Alaitz Ziordia zamudioztarra, orijinala eta hauslea. Lepokoak, belarritakoak, giltzatakoak... egiten ditu eta bere diseinuak Txorierrin ez eze Euskal Herriko hainbat txokotan be bihurtu dira ospetsu. Etxbitxiak da euren marka.

t/a: Aikor!

Nondik dator zure bitxien orijinaltasuna?

Egiten dodan materialen nahastetik. Aspaldi honetan metala gehiago erabiltzen banabil be, diseinuetan material desbardinak buztartzea gustaten jat: haziak, egurra, harria, erretxina... Eta hain zuzen be horregaitik uste dot nire bitxiek erakartzen dabela jentea.

Zelangoa da zure lan prozesua?

Gustaten jatan lepokoa, garrikoa... edozein gauza erosi eta apurtu egiten dot. Ondoren, ha osatzen daben aleak erabiltzen dodaz, beste osagarri batzuk diseineteko. Esate baterako, garriko baten aleak belarritakoak edo lepokoak egiteko erabili neikez. Etxean tiradorez betetako armairu handia daukat, eta tirador bakoitzean, hainbat osagai eta material. Horrek neure gustuaren eta momentuan bururatzen jatanaren arabera buztartzen dodaz.



ak ipinteko"

Ikuspuntu berezia da zurea, dendetan bitxiak barik horreek osatzen dabezan aleak ikusten dozuz-eta.


Bai. Ganera, nire diseinuen antzekorik ez dago dendetan, eta ez dago diseinatzailerik beharra nire moduan egiten dauenik. Horregaitik da oso erronka handia niretzat. Bitxi handi bat ateraten jataanean, koloretsua... neure buruari galdezen deusatz ea inork ipiniko dauen soinean. Izan be, batzuetan, nire diseinuak erateko, ausarta izan behar dala pentsetan dot. Baina arrakasta handia dabe eta jenteari gustaten jakoz orokorrean. Hiru urte daroadaz azokarik azoka, eta ondo saltzen da. Normalean, Bizkaiko eta Arabako azoketara joaten naz, eta prest nago diseinuak edozein leku eta ekitalditara erateko.

Baina zu irakaslea zara; bitxiarena zaletasuna da, ezta?

Diseinetan erlaxazio-momentuetan egiten dot; telebista aurrean nagoala edo inspirazioa etorten jatanean. Beharra presinopean egin behar badot, gauzak ez deustez hain ondo urteten.

Gustauko litxakizu zaletasuna inoz ogibide bihurtzea?

Ez daukat oso argi, baina autortu behar dot inoz pasau egin jatala burutik. Arlo honetan jarduteko, oso ausarta izan behar zara, eta sinisgarritasun handia euki zeure beharrean. Nik badakit jenteari gus-



tetan jakozala nire bitxiak, eta alde horretatik uste dot izan letekela zaletasuna ogibide bihurtzea. Baina honelako negozio baten sartzea oso pauso handia da. Inbertsino handia egin behar da, eta beste persona baten laguntasuna be behar da. Ez dakit nik bakarrik aurrera aterateko gauza izango nintzan. Batek daki!

Zein da egin dozun beharrik bereziena?

Gatxa da esatea. Halanda be, niretzat oso adierazgarria izan zan orain dala hiru urte Bizkaiko Urtxintxa eskolarako egin genduan oroigarria. Eskolak 20 urte bete zituen eta fimoizko giltzatakaok egin genduzan, jentearen artean banatzeko. Oso berezia izan zan, beharra lagun batzuen artean egin gendualako.

Kontaktua: etxbitxiak@hotmail.com



"Egiten dodan materialen nahastetik dator bitxiaren orijinaltasuna"

"Nire diseinuen antzekorik ez dago dendetan; horregaitik da oso erronka handia niretzat"



Izar gazteen bila dabilta Txorierrin

Castingak urriaren 14an eta 15ean egingo dira eta bertan 12 urtetik 18 urtera bitarteko gazteek hartu ahalko dute parte



Ospe handiko pertsonaiak ditugu Txorierrin: idazleak, aktoreak, bertsolariak, kirolariak eta musikariak, banaka batzuk aipatzearen. Baina oraindik ezagunak ez diren hainbat talentu ere baditugula ziur gaude. Horren haritik, Txorierriko Mankomunitateak "Izarren distira" talentu lehiaketa antolatu du. Lehiaketa 12 urtetik 18 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta, eta horiek ezkutuan duten artista distira-tsua azalera dezatela du helburu.

Urriaren 30ean gala bat izango da Sondikako Kultur Etxean eta artista berriek euren abileziak jendaurrean erakusteko aukera edukiko dute han. Gainera, epaimahaia gazteentzat erreferente diren pertsonaia famatuek osatuko dute. Hala ere, gala horretan parte hartu ahal izateko, aldeztu castingak gauditu beharko dituzte parte-hartzaileak. Probak urriaren 14an eta 15ean egingo dira eta bertan euren ikuskizuna landu beharko dute. Lehiaketan bakarka zein taldeka aritzeko aukera dago, eta edozein motatako ikuskizuna aurkeztu daiteke: bakarriketa, antzez-lana, kanta, dantza edo bertsoak, esate baterako. Gutxienez bi minutuko emanaldiak eta gehienez 10 minutukoak onartu-

Zehatz-mehatz

"Izarren Distira" Kastingak:

Urriaren 14an eta 15ean

"Izarren Distira" Gala:

Urriaren 30ean, Sondikako Kultur Etxean

Kontaktua:

txorierrikold@gmail.com

637 58 88 03

Bloga:

www.izarrendistira.com

ko dira eta horiek euskaraz izan beharko dira. Epaimahaia irizpide hauek hartuko ditu kontuan, ikuskizunak baloratzeko orduan: originaltasuna, hizkuntzaren tratuera, neska eta mutilen parte hartzea eta talde lana.

"Txorierriko izarren distira" lehiaketan izena emateko epea urriaren 8an amaituko da. Izena eman zein lehiaketari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, txorierrikold@gmail.com helbide elektronikora mezu bat agindu edo 637 58 88 03 telefono zenbakira jo daiteke. Horrezaz gainera,



webgune bat ere jarri da martxan: www.izarrendistira.com.

Tuentian ere bai

Beste alde batetik, Txorierriko Mankomunitateak "Izarren Distira Txorierri" sarea sortu du Tuentian. Tresna honen bitartez, argazkiak eta bideoak partekatu zein zuzeneko komunikazioa sustatzeko aukera eskainiko zaie gazteei. Tresna hau bide berria da, Txorierriko gazteen iritzia eta proposamenak ezagutu eta talde izaera indartzeko.



izarren distira!

Tuaren
ere zure
xoln!

Txorierrri

TXORIERRIKO ARTISTA BILA GABILTZA!

Iakentzu handiko 12-18 urte bitarteko txorierriaren behar ditugul!
Kasting-ean parte hartu eta zuri potozok irabazteko prest!

KASTING-AK: umartean 14an eta 15ean

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: umartean 16a

GALA: umartean 30ean, 19.00etan, Sindikako Kultur Etxean
Sarean dohararik

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.izarrendistira.com

txorierrrikoID@gmail.com

637588800





Derio, ping-pongaren hiriburua

Elbarriek egiten dituzten kirolak normalean ez dira oso ezagunak izaten; mahai-tenisa ere ez da entzute handiko jarduera gure artean. Derion bata eta bestea uztartu eta Nazioarteko I. Irekia antolatu dute.

t: Gaizka Eguskiza

Futbola kirol nagusia da munduan. Eta aurreko asteetan Munduko Kopa jokatzeko bada, zer esanik ez! Leku guztietan ematen digute haren berri. Hala ere, futbola ez da kirol bakarra, eta ekainean goimailako kirol-erakustaldi bat ikusi ahal izan genuen Derioko kiroldegian. Izan

ere, Fekoor Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Elkarateak eta DerioKOMunikazioak Nazioarteko I. Ping-pong Irekia antolatu zuten. Antolatzailerik Bilboko eta Derioko Udalen, BBK-ren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesak izan zuten. Lehiaketa ederra jokalariei eskaintzea izan dute helburu antolatzailerik. Gainera, Derioren, Txorierriren eta, oro

har, Bizkaiairen irudi ona helarazi nahi diete.

Emaitei dagokienez, Selcuk Cetin alemaniarrek irabazi zuen Irekia gizonezkoen mailan, eta Borislava Peri-Rankovic serbiarrak, emakumezkoen. Gainera, beste kategoria bi ere jokatu ziren: *single* eta *team* direlakoak. Aipatzekoa da Fekoor elkaratearen taldeak erakutsi duen maila ona. Esate baterako, Iker Sastre bilbotarra –28. postuan, munduko sailkapenean– laugarren gelditu zen bere kategorian. Era berean, Porfirio Hernándezek eta Salvatore Caci italiarrak osatutako bikoteak zilarrezko domina eraman zuen etxera. Fekoor José Manuel Mentxaka derioztar-



“Lehiak itzelak izan dira. Jokalariek erakutsi dute mahai-tenisa ikuskizun ikaragarria dela, kirola letra handiz”

Munduko jokalaria onenetarikoek hartu zuten parte Derioko Irekian



rrak ere jokatzen du taldean, baina ez zuen zorte handirik izan txapelketan.

8.000 kilometro, autoz

"Intentsitate handiz bizi genituen hiru egunak, lehiak itzelak izan zirelako. Jokalariek erakutsi dute mahai-tenisa ikuskitun ikaragarria dela, kirola letra handiz", adierazi dute Irekiaren sustatzaileek. Txapelketan munduko jokalaririk onenetarikoek hartu zuten parte. Guztira, 20 herrialdetako 70 kirolari izan ziren lehia Derioko kiroldegian: Austria, Costa Rica, Frantzia, Espainia, Maroko, Serbia, Kuwait... Batzuek, Errusia edo Ukrainatik etorri zirenek, 8.000 kilometro egin behar

izan zituzten autoz Deriora heltzeko. "Horrek agerian uzten ditu jokalarien hobetzeko grina eta kirol-espirtua".

Nazioarteko Mahai-tenis Federazioak aintzat hartu zuen Derioko irekia. Hori zela-eta, jokalariek puntuak lortzeko aukera izan zuten, datozen hitzordu nagusi bietarako sailkatzeko: aurten Korean jokatuko den munduko txapelketa, eta Elbarrien 2012ko Joko Olinpikoak, Londresen. Txapelketa antolatu ahal izateko, antolatzailerik urte bi eman dituzte lanean. Epe horretan Federazioko kideak Deriora etorri dira kiroldegia egokitzeko eta herriko azpiegiturak aproposak ziren edo ez aztertzeko.



30 z gurekin munduko herrikoenak Bilhotik hain hurbil saltzen dituztenak 30

SUITE DELUX

MAHAI-TENIS BORDA ETXEREN BORDA

Celeberrakia Leioa La Brea 101 (Bilboaren erdigunetik 100m baino gutxiago)	Celeberrakia Artea Pasaia 101 (Bilboaren erdigunetik 100m baino gutxiago)	Lofta Kaliforniako 101 (Bilboaren erdigunetik 100m baino gutxiago)
--	---	--

www.aikor.com

“Ahulezia daukat hanketan, eta, horren ondorioz, ezin naiz denbora luzean zutik egon”

“Fekoor elkarteak izugarrizko laguntza ematen digu elbarrioi: lanean, aisialdian...”



eskuetan nabaritu nuen eta zabaldu egin da apurka-apurka. Orain ahulezia daukat hanketan, eta, horren ondorioz, ezin naiz denbora luzean zutik egon, ezin dut arikerarik egin... Bestela, mina eta zorabioak daukat.

Noiz hasi zinen ping-pongean jokatzeko?

Gaixorik nengoela esan zidatenean, ping-pong hasi nintzen jokatzeko. Gaztea nintzela, lagunekin joaten nintzen ping-pong, billar edo mahai-futboleko jokatzera, eta zaletasuna hortik jaio zen, neurri batean. Beste alde batetik, Fekoor elkarteak kirola egitera animatu ninduten arazoak pairatzen hasi nintzenean, eta horregatik eskerrak eman beharrean na-

go. Elkarte horrek izugarrizko laguntza ematen digu elbarrioi: lana topatzen laguntzen digu, aisialdirako ekitaldiak antolatzen dituzte....

Noiz entrenatzen duzu?

Lanaren arabera. Lanak ez dit egunero-egunero entrenatzen uzten, baina denbora librean dudanean, ping-pongean jokatzeko dut. Normalean, taldekideekin entrenatzen dut. Eta gure artean ez ezik, zutik aritzen direnen kontra ere jokatzeko ditugu partidak. Liga txikia antolatu dute Bizkai mailan, eta aurten parte hartu dugun bigarren urtea izan da. Datorren denboraldian, euskal ligan ere jokatu nahi dugu. Hori lortzen badugu, elbarriak ez direnen kontra jokatzeko duen lehenengo

elbarri taldea izango gara.

Kirol arloan, erronkaren bat duzu etorkizunari begira? Elbarrien Joko Olinpikoetan parte hartu nahiko zenuke?

Datorren denboraldian, Espainiako txapelketan hartuko dut parte. Elbarrien Joko Olinpikoei dagokionez, ordea, ez dakit... Bertan jokatzeko, hainbat txapelketatan parte hartu behar duzu parte nazioarte mailan, eta horretarako, dirua eta denbora behar dituzu. Txapelketa bakoitzean 700 euro inguru gastatu behar dira. Normalean goi-mailako kirolariak babesleak laguntzen diete, baina oso gutxiren kirola da gurea, eta babesleak ez digute kasu handirik egiten.


ADIN KIDUEN TALDEA
Eskola 101, 102, 103, 104
48100 Leizor
Tel. 945 41 11 11 / 945 41 11 12
adinkiduen@taldea.com

ADIN KIDUEN TALDEA
Eskola 101, 102, 103, 104
48100 Leizor
Tel. 945 41 11 11 / 945 41 11 12
adinkiduen@taldea.com

ADIN KIDUEN TALDEA
Eskola 101, 102, 103, 104
48100 Leizor
Tel. 945 41 11 11 / 945 41 11 12
adinkiduen@taldea.com

ADIN KIDUEN TALDEA
Eskola 101, 102, 103, 104
48100 Leizor
Tel. 945 41 11 11 / 945 41 11 12
adinkiduen@taldea.com

TALDEA



GURENA

ASISTENTIA ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

ADIN KIDUEN TALDEA
• 7111111111 • 7111111111





Jai herrikoia eta parte-hartzaileak



a: Larrabetzuko jai-batzordea

Aurreko urteetan bezala, Intxurreta Larrabetzuko jai-batzordeak herritar guztiei zuzendutako jai-egitarau ezin hobe prestau dau andramari eta sane-meterietarako. Intxurretakoak ez dira formula barrien bila ibili, betiko formatuak ondo baino hobeto funtzionaten dauelako. Izan be, Larrabetzuko jaiak herritarrek eginak eta herritarrentzat eginak dira. Txupinazoa abuztuaren 14an, zapatuan, botako badabe be, bari-kuan be ekitaldiak izango dira Larrabetzun. Horrela, Areto-futbol Txapelketearen finalaurrekoa eta finala jokatu dira arrastian, eta herri afaria egingo dabe iluntzean. Modu ona, motorrak berotzen hasteko.

Olarreta pelota eskolak pelota partidak antolatu ditu zapatu arrastirako. Txupinazoa iluntzeko 9etan botako dabe

Abuztuaren 13an, barikuan

–18:30: Areto-futbol Txapelketaren finalaurrekoa eta finala.

–21:00: Herri afaria / kantuz kantu.

Abuztuaren 14an, zapatuan

–17:30: Pelota partidak, umeak eta gurasoak. Olarreta pelota eskolak antolatua.

–21:00: Txupinazoa eta txistulariak.

–22:00: Ume eta gazteentzako diskotxoua.

–00:30: Erromeria, Auskalo non taldeagaz.

Abuztuaren 15ean, domekan

–13:00: Fanfarrea.

–13:30: Gaztelumendi abesbatzaren emonaldia.

Andramarien jai-egitaraua

–13:30: Pintxoak dastatzea.

–18:00: Asto karrerea.

–19:00: Bertsolariak.

–19:30: Fanfarrea eta buru handiak.

–22:00: *Oilaskoetxea* antzezlan, Malas Compañías taldearen eskutik.

–23:00: Erromeria, Tximeleta taldeagaz.

–00:15: Erromeria.

Abuztuaren 16an, astelehenean

–11:30: Txistulariak eta kalejirea, buru handiak.

–12:00: Pelukeria eta Makillaje Txapelketea.

–14:00: Sukalkin Txapelketea (untxia).

–14:30: Umeen bazkaria.

–17:30: *Txirrikiz* antzezlan, Kukubiltxoren eskutik.

–19:00: Triatloia.

–20:00: Erromeria, Arizgoiti taldeagaz (Gure Etxean).

–22:00: Erromeria, Haitzama taldeagaz.

Abuztuaren 24an, martitzenean (San Bartolome)

–12:30: Bizikleta igoera.

–14:30: Paella Txapelketea.

–17:00: Briska Txapelketea.

–18:30: Ugelaxo-toka Txapelketea.



Remirez Instalaciones S.L.

EMPRESA INSTALADORA DE
REFRIGERACIÓN, CLIMA Y CALOR

900 100 100 (gratuito desde España)
91 111 111 111 (gratuito desde el extranjero)

Remirez Instalaciones S.L.
Calle de la Industria, 10 (28014 Madrid)






LARRABETZU
MUSIKA ESCOLA

Markel Zubill
Ikasleko homologatua

Presbiterio, LARRABETZU
48190 LARRABETZU
48190-LARRABETZU
FOTERIA, ARTEBASSEN



LARRABETZU KUTXAK
Eskola KUTXAK
KUTXAK

AMINA MARIKAI PA
TEL: 94 400 84 04



MUSIKA ESCOLA
Kutxa
Irailaren 13an
LARRABETZU

48190-LARRABETZU
FOTERIA, ARTEBASSEN

www.aikor.com | www.larrabetzu.com | www.musika-eskola.com | www.kutxa.com



LARRABETZU
MUSIKA ESCOLA
FOTERIA, ARTEBASSEN
(BIZKAIA)

FOTERI TABERNA



Presbiterio, FOTERIA, ARTEBASSEN
Telefono: 94 400 84 04


48190 LARRABETZU Bizkaia

MARIA LUISA TABERNA



Eguneroko menua
Artebasaren menu bereak

Artale, 5, Artale (Tel: 94 400 84 04) Bizkaia



NARRABETZU
BIZKAIA

TELEFONO BERRIA
TEL: 94 400 84 04

TELEFONO BERRIA
TEL: 94 400 84 04

Hnos. Villegas



Artebasaren menu bereak

Artebas, 5, Artale (Tel: 94 400 84 04) Bizkaia

Aliprox

INES JANARI-DENDA

Presbiterio, 4
48190 LARRABETZU
TEL: 94 400 84 04


*"Antzezlanak, kirola,
erromeriak, herri
afaria... hamaika
aukera egongo dira
aurton jaietan"*

eta, horren ostean, "diskotxoua" egongo da ume eta gazteentzat. Auskalo non taldeak musikea jarriko deitso jaien lehenengo egunari. Domekan ez gara oso goiz altzau beharko. Fanfarreak eguerdiko ordu batean urtengo dau kalejiran, eta pintxoien dastatzea eta Gaztelumendi abesbatzaren emonaldia be izango dira. Arrastia ekitaldiz beteta etorriko jaku: asto karrerea, bertsolariak eta antzezlan bat, banaka batzuk baino ez aitatzearen. Egunari Tximeleta taldearen eskutik emongo deusie amaierera.

Astelehena be egun luzea izango da. Txistulariak eta buru handiak goiz-goiz hasiko dira Larrabetzuko kaleak girotzen, eta egun osoan adin guztietako larrabetzuarrei zuzendutako ekitaldi sorta zabalago da: Sukalki Txapelketea, umeentzako bazkaria, antzezlan, triatlota eta erromeria, besteak beste.

San Bartolome

Jaiak joan eta jaiak etorri. Abuztuaren 24an San Bartolome ospatuko dabe Larrabetzun. Egun horretarako, bizikleta igoerea eta hainbat txapelketa antolatuko



dabez: Paella, Briska eta Ugelaxo-toka.

San Bartolomek lekukoa pasauko deitue emeteriei. Emeteriak abuztuaren 30tik irailaren 1era izango dira Goikoelezea auzoan. Txupinazoa eguerdian botako dabe. Marmitako eta Mus Txapelketak egingo ditue, eta arrastian Barrenetxera igongo dabe bizikletaz. Gauean erromeria egongo da, Trikizio taldearen eskutik.

Abuztuaren 31n, martitzenez, aizkolarien erakustaldia izango da goizean, eta eguerdian Xabier Amuriza eta

Emeterien jai-egitaraua

Abuztuaren 30ean, astelehenean

- 13:30: Txupinazoa eta txistulariak.
- 14:30: Marmitako Txapelketea.
- 17:00: Mus Txapelketea.
- 19:30: Barrenetxera bizikleta igoera.
- 22:30: Erromeria, Trikizio taldeagaz.

Abuztuaren 31n, martitzena

- 12:30: Aizkolariak.
- 13:30: Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Arkaitz Estibaldez.
- 17:00: Briska Txapelketea.
- 19:30: Idi probak.
- 21:30: Dantzak, Arrabots taldeagaz.

Irailaren 1ean, eguaztenean

- 12:30: Txistulariak.
- 17:00: Umeentzako jokoak, Kulki-
ren eskutik.

Arkaitz Estibaldez bertsolariak arituko dira bat-batean. Arrastirako idi probak, Briska Txapelketea eta dantzak antolatu ditue. Hurrengo egunean, jaiak agur esateko ordua ailegauko da. Goizean txistulariek alaituko ditue auzoko txokoak, eta arrastian umeentzako jokoak egongo dira.

Larrabetzuarrek jarrera ezin hobea izan dabe beti herriko jaien aldera, eta oso parte-hartze handia euki dabe bertan. Aurton be ziur gagoz jaiak gustu ona itxiko deuseela ahoan.



SARRIKOLA OGITEGIA

PIZZERIA, PASTA, PASTELERIA, REPOSTERIA, HAINBAT TARTA



SARRIKOLA, 289 LARRABETZUKO
15-16 UR. 489 30 37
Gazteak: 10-18 UR. 10 30 37





*Parle hartu
gure jaietan*



Ayuntamiento de
Lezama (Vizcaya)

jaiak enketaraz bizi!




GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK ERAKUNTZAK

Abuztuak
 Martxoak-Indiak
 Oatzen
 Informazioa eta aholkularitza
 Informazioa
 Oatzeneko erakundeak

Tel.: 94 455 50 19


Garaioa, S.A. (Vizcaya)
Lezama (Vizcaya)



ZORRIZKETAN

1. ZORRIZKETAN 2. ZORRIZKETAN 3. ZORRIZKETAN

ELIZKATEA BILBO



ELIZKATEA BILBO

TXIBOLINX

LOKALAK



TXIBOLINX

Telefonoa: 94 455 50 19
 Fax: 94 455 50 19
 94 455 50 19

TXIBOLINX

Telefonoa: 94 455 50 19
 Fax: 94 455 50 19
 94 455 50 19

HARRI-BILBO

1. HARRI-BILBO 2. HARRI-BILBO 3. HARRI-BILBO

HARRI-BILBO

Telefonoa: 94 455 50 19
 Fax: 94 455 50 19
 94 455 50 19

HARRI-BILBO

Telefonoa: 94 455 50 19
 Fax: 94 455 50 19
 94 455 50 19

CONSTRUCCIONES

LANDETANE, S.L.

CONSTRUCCIONES

Telefonoa: 94 455 50 19
 Fax: 94 455 50 19
 94 455 50 19

CONSTRUCCIONES

Telefonoa: 94 455 50 19
 Fax: 94 455 50 19
 94 455 50 19

a: Asier Saenz

Abuztuan oporrak hartzen dira normalean. Jentea hondartzara joaten da, esate baterako. Edozein gauza, egunero-kotasuna apurtzeko eta gure bizimodutik aldentzeko. Halanda be, Lezaman hilebete osoa emongo dabe beharrean herriko jaiak presteteko: abuztuaren 29tik irailaren 12ra bitartean Andra Mari jaiak egingo dira herrian; eta horreek amaituta, hau da, irailaren 13an, Kurtze auzoak hartuko dau lekukoa eta ekitaldi batzuk antolatuko dira bertan irailaren 15era arte.

Betiko legez, publiko guztiei dagoz zuzenduta Andra Mari jaiak: umeak, gazteak, nagusiak... Dan-danek primeran paseteko aukerea eukiko dabe. Dana dala, nobedade gitxi aurrekusi dabe antolatzailerik. Mozorroren lehiaketaren gaia zir-

Opor osteko jaiak



Jai-egitaraua

Abuztuaren 29a, domekea

–08:00: “Lezamako Mugetatik” V. mendi martxa eta lasterketa. Izena emoteko, www.lezamakomugetatik.com-en.

Irailaren 2a, eguena

–12:00: Mezea. Ostein, kopaua eta trikitia.

–15:00: Herri-bazkaria. Ostein, mus eta briska txapelketea.

Irailaren 3a, barikua

–19:00: Partiduak, pelotalekuan. Pelota Eskolaren eskutik.

–20:00: Txupinazoa eta pregoia. Ostein, trikipotea herriko tabernetatik. Odolosteak, tabernetan.

–22:00: Txosnak edegitea.

–22:00-00:00: Mozorro lehiaketea. Gaia: zirkua.

–23:00: Kontzertuak: Desidia + Derioko

talde bat + Trikitizio.

–02:00: Mozorro lehiaketaren sari-banaketak.

Irailaren 4a, zapatua

–12:00-14:00: Pintxo lehiaketea herriko tabernetatik, trikitilariak alaitua.

–12:00-14:00: Umeen jolasak.

–18:00-20:00: Umeen jolasak.

–20:00: Darbuka Batukada taldeak herria alaituko dau.

–23:00: Kontzertuak: Esne Beltza + Betagorri + Triki Ta Ke.

Irailaren 5a, domekea

–10:00-14:30: “Andra Mari” III. BTB martxa, Zorribike taldeak antolatua.

–12:30: Mezea. Ostein, kontzertua, Lezamako Ekidazu eta Bilboko “Motsorriak” abesbatzen eskutik.

–13:30: Dantza emonaldia, Kuruntze taldearen eskutik.

–15:00: Herri-bazkaria, Zorritzetanen eskutik. Bazkalostea, Astrapala taldeak girotua.

–18:30: Erdizka Lauetan.

Irailaren 7a, martitzena

–Odolosteak herriko tabernetatik.

–19:00: Trikitilariak herriko tabernetatik.

Irailaren 8a, eguaztena

–12:00: Mezea.

–13:00: Kopaua, Adintsuen Etxean. Bertoko taldea, herriko tabernetatik.

–18:30: Bingoa eta briska, Adintsuen etxean. Amaitzean, merienda.

–19:00: Parrandan, berbenea, gazteentzat.

Irailaren 9a, eguena

–12:00: Mezea.

Irailaren 10a, barikua Bola-lekuko jaiak

–12:30-13:00: Izen-emotea, Paella lehiaketan.

–13:00: Trikitilariak alaituko dabe goiza.

–14:30: Paellen aurkezpena eta sari-banaketak.

–16:00-16:30: Mus txapelketea Goiko Tabernak eta Lejarrenek antolatua.

–17:30-19:30: Poniak.

–19:30: Txokolatadea.

–23:00: Berbenea, Luhartz taldeagaz.



kua izango da, adibidez. Musikari jagokonez, Esne Beltza, Betagarri, Trikizio edo Luhartz taldeak eukiko doguz entzungai. Ganera, besteak beste, jolasek, lehiaketek, kirolak, dantzak eta gastronomia-eskaintza zabal batek osatzen dabe jai-egitaraua.

Lezamarrek ez dabe irailean nekatze-ko denporarik eukiko. Izan be, Andra Mari jaiak amaitzen diranean, Santa Kurtzek hasiko dira. Nobedade nagusia aurton lehenengoz egingo dan sorgin lehiaketa da. Santa Kurtze jaiak lotura estua dabe herriagaz eta euskal kultureagaz. Auzokideek mortxilak jan ahal izango dabez tabernetan egun guztietan. Era berean, kalejiretan eta mus txapelketan parte hartzeko aukerea eukiko dabe, besteak beste. Su artifizialek amaiera emongo deutsee jaiiei.

Irailaren 12a, domekea

–Pelota partida profesionalak, Frontoian.

SANTA KURTZE

–Mortxiladea, herriko tabernetan egun guztietan

Irailaren 13a, astelehena

–16:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.

Irailaren 14a, martitzena (Santa Kurtze Eguna)

–12:00: Mezea, ermitan. Ostein, kopaua eta trikitia.

–20:00: Idiak erakustea.

Irailaren 15a, eguaztena

–16:30: Mus txapelketea, Zigoun-en.

–16:30: Sorginen lehiaketa.

–17:00: Gorritiren animaliak.

–20:30: Sorginen erakustaldia, ermitan. Ostein sari-banaketa.

–21:00: Disko-jaia, Dj Xaiborren eskutik.

–23:30: Sorginari su emotea, su artifizialak eta jaien amaiera.



Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Arandako, 71 404
48941 LEZAMA
091 10 00 10
Baserriaren eta herriaren
zentzua da. 144

Puntua
Intervencio

LOTTERIA LEZAMA

Loteria
Bilaka 1000000
112
Loteria
Bilaka 1000000

Comunicación Social
Jorge Arandako
Bilaka 1000000
Bilaka 1000000

LOTERIA DE FERIA DE LEZAMA - FERIA DE LEZAMA

LAPICO S.L.

K

ESTABLECIMIENTO DE LEZAMA
ESTABLECIMIENTO DE LEZAMA

BASALBENTIKO
TXAKOLINE

LEZAMA LEZAMA
LEZAMA LEZAMA

Basalberto
LEZAMA LEZAMA

GOIKO
TEBERNA

Taberna Lezama
Lezama

Lezama Lezama
Lezama Lezama
Lezama Lezama
Lezama Lezama

KUM

Lezama Lezama
Lezama Lezama

LEZAMA LEZAMA
LEZAMA LEZAMA

Club Hípico Lezama

Lezama Lezama
Lezama Lezama

Lezama Lezama
Lezama Lezama

Lezama Lezama

Lezama Lezama
Lezama Lezama

Lezama Lezama
Lezama Lezama

EXCAVACIONES
AZURMENDI

Lezama Lezama
Lezama Lezama


OXANGOITI
Kutur Elkartea = TABERNA

Lezama Lezama
Lezama Lezama

EXCAVACIONES
AZURMENDI

Lezama Lezama
Lezama Lezama

3. saria eta eskuinaldean, bigarrena



Balkoiak apaindu egin ditue Zamudion

Zamudioko Udalak Balkoi Apainduen Lehiaketeta antolatu dau lehenengo aldiz, eta lehiaketa horrek harrera ezin hobia izan dau herritarren artean. Izan be, ehun lagunek hartu dabe parte. "Ekimenaren helburua izan da agirian ixtea zein garrantzitsua dan balkoiak udalerraren elementu estetiko bezala berreskuratzea", azaldu dabe udaletxetik.

Maiatzean, stand bat jarri zan Agirre Lehendakariaren plazan eta bertan 5.000 landara inguru batu ziran: surfiniak, gitnillak eta geranioak, banaka batzuk aita-tzearren. Parte-hartzaileek landara horrek erabili behar izan zituen, euren balkoien apainketa egiteko. Beste alde batetik, Urazca enpresako langileen aholkuak be jaso zituen: landarak nora begira eta




Lehiaketaren 1. saria



balkoiko zein lekutan ipini behar ziran, edo landarak zelan jagon behar ziran, esate baterako.

Zamudioztarrek gustu ederra dabela erakutsi dabe eta balkoiak ederto apaindu dituez. Epaimahaiak ez dau erraz izan, baina akabuan M^a Angeles Bilbaoren balkoia aukeratu dau irabazle. Aitor Lezikaren balkoia bigarren lotu da. Irabazleak 700 euroko txartela jaso dau saritzat; eta bigarrenak, 300 euroko txartela. Dirua herriko dendetan gastauko dabe. Epaimahaiko kideek irizpide honeek izan ditue kontuan, euren erabagia hartzeko: originaltasuna, ornamentazio-kalidatea, beharren iraunkortasuna eta diseinu floristikoa.



Non gogoa, han zangoa

SONDIKAKO KIROLZALEAK

Kirolzaleak izan dira betidanik, eta denetarik egin dute: txirrindularitza, korrika, harriak zulatzea.... Azken bolada honetan, Unai Ibarrek eta bere lagunak ultratrailari ekin diote; hau da, lasterketa luzeak menditik egiteari. Guztiek Sondikako kirolzaleak taldea osatzen dute.

t: Gaizka Eguskiza / a: Sondikako Kirolzaleak

Zer esango zenioke menditik 120 kilometroko lasterketa egiten duen lagun bati? Burutik jota dagoela, ziurrenik. Hori bera esaten diete etxekoek Unai Ibarri eta Sondikako kirolzaleak taldeko beste kideei. Sondikako 35tik 40 urte bitarteko hamar lagunak osatzen dute taldea. "Betidanik gustatu zaigu kirola egitea, eta azken 20 urteotan hainbat kiroletan jardun dugu", esan du Unai. Gauza desberdinak egitea izugarri gustatzen zaie eta euren azken erronka ultratraila da. Ultratrail horretan 40 kilometrotik gorako lasterketak egiten dira, normalean natura-

inguruetan, mendian edo basamortuan, esate baterako.

Mota horretako lasterketa batzuk burutu dituzte sondikarrek azken urteotan. Esaterako, maiatzean "Los 10.000 del soplao" izeneko lasterketan hartu zuten parte, Cabezón de la Sal herrian, Kantabriar. "Kantauriko edo Iparraldeko infernua esaten zaio, eta halaxe izan zen, infernu hutsa. Guztira, 125 kilometro egin behar izan genituen oinez menditik". Era berean, ekainean "Hiru handiak" egin zituzten Araban. "Lasterketa horretan Gorbela, Anboto eta Aizkorri mendietatik pasatu ginen. Guztira, 100 kilometroko ibilbidea da eta Bizkai, Gipuzkoa, Araba eta



*"Paris-Brest-Paris
txirrindularitza
lasterketa egin nahi
dugu. Lau urtetik
behin egiten da"*

*"Inoiz egin dudan
lasterketarik gogorrena
Mont Blancoko
Ultratraila izan da"*

*"Etxekoek esaten digute
ero gaudela: zergatik
hainbeste kilometro,
zergatik hain urrun..."*

Nafarroatik ibili ginen 20 orduz".

Aurreko lasterketa biak amaitzeko gauza izan ziren taldeko kideak; uztaillean Beasainen antolatutako "Ehun milak" martxan, ordea, huts egin zuten. "Oso eguraldi txarra egin zuen eta hasi baino lehen mina hartu nuen. Era berean, nire kidea hipotermiak jota ibili zen, eta berak ere ezin izan zuen lasterketa bukatu". Dena dela, datorren urtean Beasainera berriro itzultzeko asmoa dute. Gainera, beste erronka batzuk ere badituzte buruan. "Abenduan taldekide batzuk Aconcagua mendira joango dira".

Paris-Brest-Paris

Etorkizunari begira, Aconcaguarena ez da taldeko proiektu bakarra. "Paris-Brest-Paris txirrindularitza lasterketa egin nahi dugu. Lau urterik behin egiten da eta, guztira, 1.100 kilometroko ibilbidea du". Taldekideek eskarmentu handia dute txirrindularitzan. Izan ere, apirilean Flan-deseko Itzulia burutu zuten egun batean. Guztira, 270 kilometro. "Oso gogorra izan zen: aldapak ez ziren oso luzeak, baina ikaragarritzko ehunekoak zituzten; beste alde batetik, bidea ilaunezkoa da. Gogortasuna itzela izan arren, hamabi orduan

amaitzeko gauza izan ginen".

Taldeak egiten dituen lasterketak izugarri gogorrak dira, baina "non gogoan, han zangoa" esamoldea hartzen dute lelotzat sondikarrek. "Buruak jartzen ditu mugak, ez hankek: 2007an, 168 kilometroko Mont Blancoko Ultratraila egitera joan ginen. Europako lasterketarik gogorrena da. Italia, Suitza eta Frantziatik igarotzen duzu, eta mendian gora eta behe- ra ibiltzen zara. Guk gorriak ikusi genituen: 40. kilometroan oso nekatuta ibili nintzen, baina jarraitu egin nuen eta lasterketa amaitzea lortu nuen. Inoiz egin dugun eromenik handiena izan da ultratrail hori".

Lasterketak oso gogorrak badira ere, bizitza arrunta egiten dute taldekideek. "Kirola egiten dugu aisialdia dugunean, baina normalean ez dugu entrenamendu berezirik egiten". Elikadura ere ohikoa da. "Indabak jan behar baditugu, jaten ditugu, eta txuletoia bada, askoz hobeto (kar, kar)". Hala ere, lasterketara joan baino egun batzuk lehenago arroza, entsaladak eta pasta jaten dituzte. Era berean, korrikaldietan bertan ere hidratoz betetako elikagaiak hartzen dituzte. "Gu ez gara profesionalak; gustatzen zaigulako egiten dugu kirola. Guztiok familia dugu eta horregatik ezin gara egunero-egunero leku batetik bestera ibili. Etxekoek esaten digute ero gaudela: zergatik hainbeste kilometro, zergatik hain urrun.... Eta guk beti erantzuten diegu azkenengoa izan-go dela...". Esaten da umeek eta mozkortiek baino ez dutela egia esaten; zoroek, aldiz, gezurak esaten omen dituzte.



volcanisa MARCA
JOSU ARRIAS / JESUS ARRIAS

Ikasle irakasle irakasle irakasle
IRAKASLE, IRASLE, IRASLE

101 101 101 101 101 101 101 101 101 101
101 101 101 101 101 101 101 101 101 101

aldeko ne
Ikasle irakasle irakasle irakasle
101 101 101 101 101 101 101 101 101 101

Ikasle irakasle irakasle irakasle
101 101 101 101 101 101 101 101 101 101


101 101 101 101 101 101 101 101 101 101

101 101 101 101 101 101 101 101 101 101

101 101 101 101 101 101 101 101 101 101
101 101 101 101 101 101 101 101 101 101

ESTRATEGIA PRINCIPIOS
Ruben

101 101 101 101 101 101 101 101 101 101
101 101 101 101 101 101 101 101 101 101



Armarria eta bost irudi. Armariaren gainean dama bat dago; gure ustez, nagusia. Bere ondoan, eta ezkerrean, beste dama gazte bat dago; eta bere ondoan, beste gazte bat lautea jotzen. Eskuman zaldun ehiztari bat azaltzen da; eta horren ondoan, beste zaldun bat, garaiko arropa dotorea jantzita duena. Badirudi hori familia boteretsu batekoa zela, eta bere janzkera dotoretasuna eta garaiko modaren adierazlea da. XVI. mende azkenerantz.

t/a: Sabin Arana


Larrabetzuko baserri-jauregi honen nondik norakoak ez daude argi. Eraikina-ren egiturari erreparatzen badiogu, bertan era bitako eraikuntzak daudela esan dezakegu. Alde batetik, etxea bera. Horren egitura zaharra bada ere, eta gaur egun apur bat desitxuratuta egon arren, antzinako leinu-etxe zahar horietako bat dela ematen du. Eta bestetik, XVII. mendearen hasierako eskailera eta balkoia erabilia era klasikoan egiten saiatu zirena.

Baliteke etxea bera XV. mendean eraiki izana. Zalazarren idazkietatik ondoriozta daitekeen bezala, Zugazti eta Butroi leinuek bat egin zutenekoa izan daiteke, eta, beharbada, hori burdinolaren inguruko interesak zaintzeko eraiki zuten. Izan ere, etxea Bide Zaharraren hegalean dago.

XVII. mendean, berriz, etxearen jabeak Matheo Etxabarri Bilboko merkatar ospetsua eta Mari Otxoa Erkinigotarrarena izan omen ziren. Azken hau Larrabetzuko Erkinigo lizentziatuaren sasi-alaba zen. Dena dela, esan beharra dago Herkinigotar hauek batzuetan Zugazti abizena

Oloste jauregia





Androideak ardi elektrikoekin ametsetan

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

BTEK Zentroaren diseinu-lanerako robotika arloan aritu ginenean, Japonian dauden robotika museo kopuruak harritu gintuen. Bai, teknologian murgilduta dagoen herria dela ematen du, baina hainbestetarako da? Michio Kakuren ustez, hori Japonian nagusi den xintoismo erlijioarekin dago lotuta. Xintoismoaren arabera, edozein objektuk badu espiritu bat bere baitan: harriek, mahaiek... Horren haritik, robotak ere adiskidetsutzat hartzen dira; espiritu bat dago robot bakoitzaren barruan, eta umeek maite dituzte. Gure inguruan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen.

Michio Kaku japoniarra kaliforniarra da jatorriz. Hamazazpi urte zituela, eta institutuaren zientzia-proiektu baterako antimateria sortzen saiatzen zebilela,

"Kixmi hainbat emozio adierazteko gai den robot emozionala da, eta BTEK zentroan bizi da"

lurrarena baino 20.000 aldiz handiagoa zen eremu magnetikoa sortzen zuen "traste" bat asmatu zuen. Kaku gaur egungo fisika-teorialari garrantzitsuenetariko bat da, eta zientziaren eta teknologiaren dibulgazioan aritzen da.

Biztanleriaren bizi-itxaropena gero eta handiagoa da, baina gizakiok gero eta seme-alaba gutxiago izateko joera dugu. Zelan egingo diogu aurre egoerari? Kakuk

argi du erantzuna: roboten laguntzari esker.

Orain arte, robotak lan astunak, arriskutsuak edo errepikakorrek egiteko erabili dira. Hala ere, betebeharrak egiteaz gainera, gure lagunak ere izan daitezke. Eta hain zuzen ere horregatik hasi da robot berri askori aurpegia jartzen.

Ikerketek dioten bezala, robot emozionalak sortzen baditugu, errazagoa izango da eurekin komunikatzea eta enpatia izatea. Erosoago sentituko gara, afaria prestatzen duenak edo tentsioa hartzen digunak, beso mekaniko bat izateaz gainera, aurpegia ere badu eta esaten diogunari emozioak erabiltza erantzuten badio.


MIT-eko Kismet proiektuaren barruan hau guztia ibili dira ikertzen, eta Kixmi proiektu horren "iloba" dugu. Kixmi BTEK zentroan dugu robot emozionala da, zeina alaitasuna, tristura eta hainbat emozio adierazteko gai baita, pentsatzen duzuna asmatzen duen bitartean.

Philip K. Dick-ek egiten zuen galdera hain urrun ez da egongo, beharbada: Amets egiten ote dute androideek ardi elektrikoekin?



 **Euzko Lankidetzaren Erakundea**
ETXAKO

Elkarlanean, elkarrekin, elkarri
944 704 000 (1000)
944 704 000 (1000) 944 704 000

 **FLORRIETA**
INSTALACIONES

Proyectos de Instalación y Mantenimiento

Edificio 100, 101 (Edificio 100-101)
101 (Edificio 101)
101 (Edificio 101) 101 (Edificio 101) 101 (Edificio 101)

 **Euzko Lankidetzaren Erakundea**
ETXAKO

Elkarlanean, elkarrekin, elkarri
944 704 000 (1000)
944 704 000 (1000) 944 704 000

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Zipirienea kafetegian

Behingoz isilik mostradore ertzean.
Txorik DEIA, Lukik GARA, astelehenetan
ez da BERRIarik. Horretan, bezero piloa.

-Egunon Zipiri!

-Halan ekarri.

-Zer hartuko dozue?

Hartu danak akeita, baina bakotxak
era batekoa; guztira 12 kafe mota.

-Nik hutsa.

-Bai! -Zipirik.

-Nik ebagia.

-Baita! -Zipirik.

-Nik ebagi deskafainatua kafe gitxi-
gitxigaz.

-Baita! -Zipirik.

-Nik makinako ebagi deskafeinatu
epela soja esneagaz.

-**Baitte zera bere!**

"Eta horrela doa mundua" hamabi-
garrenera heldu arte.

Guztiei entzuten eutsen banan ba-
nan eta patzientzia handiz gure taber-
nariak.

Kafe-makinara bihurtzen zanean
hasten zan zurrumurrua:

-Hori memoria harrigarria Zipirire-
na!

Zipirik, oster, oroimen ona baino
esperientzia eukan handia, ortozik ibili-
ko txakurra zan-eta. Itauntzen eban
bakotxari berea atarakeran:

-Hik zer eskatu deustak?

-Kafea kafe gitxigaz.

-Aiko hemen!

-Hik neska?



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

-Nik deskafeinatua.

-Aiko hor!

Kontua da Zipirik kokoteko zuloan
paretan jakona ataraten ebala; bardin
eutson kafe gitxigaz eskatu **nahi** asko-
gaz. Bereizten eban bakarria deskafeina-
tua eta kafeinaduna ziran.

Bezeroek ahal danik kafe motarik
gehien eskatzen eutsien **ernegazoteko**.
Jabearen eta bezeroen artean halako
konplizitate maltzurra egoan, kitanua-
ren eta trikornioaren artean legokeena.

Besterik eta bestera zan Txorigazko
hartu-emona eta Lukigazkoa. Egunero
entzungo zan:

-Niri Zipiri kafea -Txorik.

-Lukik, baina, hainbeste kafe mota
eskatzen entzunik, berak be zeozer ba-
rria gura dau:

-Nik Zipiri akeita ebakia ahuntzaren
esneagaz


Eta Zipirik eskatuak eskatu, betikoa
atara deutso.

-Aiko barrabana! -dino Lukik.



T. 94 452 34 47
www.aikora.com


Proyecto Especial GOLF GASTRONOMICO
El proyecto: 1.º y 2.º edificios de 150 y 100 habitaciones, respectivamente, en green field para campo de 18 hoyos.



T. 94 454 8374
www.paeedpderio.com

45€

www.aikora.com



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Non egingo
da AhoZgozatu
kanpaina?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

-Telefonoz: 94 452 34 47

-e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Futbola, oinarritik euskaraz liburua

Irabazlea:

Eider Lago

Limontxelo

Osagaiak:

- Litro bat etil alkohol, 95°-koa.
- Zazpi limoi, horiak eta usain goxokoak.
- Litro bat ur eta baso bat ur.
- 250 g azukre.

Prestateko area:

Limoi en azala birrindu eta etil alkoholean sartuko dogu. Hamar egunean izango dogu beratzen. Egun horreek igaro ostean, alkohola iraztekoetik pasauko dogu. Beste alde batetik, ura azukereagaz nahastuko dogu. Irazi ostean, bost minutuan itxiko dogu hotzetan. Alkohologaz nahastu eta ordu batzuetan eukiko dogu bertan. Edaria botilaratuko dogu, eta, ondo itxi ondoren, hozkailuan sartuko dogu. Hotz zerbitzatu behar dogu. Zenbat eta hotzago egon, orduan eta goxago egongo da.

gu bertan. Edaria botilaratuko dogu, eta, ondo itxi ondoren, hozkailuan sartuko dogu. Hotz zerbitzatu behar dogu. Zenbat eta hotzago egon, orduan eta goxago egongo da.

sukaldean.com



Etxeko sukaldaritza

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak:


- Kilo bat baba garandua
- Zanori eder bat (dadotan txikitua)
- 200 g pernil (dadotan txikitua)
- Kipula bi
- 4 berakatz-atal
- Patata eder bat
- Tomate heldu bat
- Ardao zuri apur bat
- Orio
- Ura
- Gatza

Baba gisatuak



Prestateko area:

Kipulea eta berakatzak garbitu eta ondo txikituko doguz. Kazuelan orio-zorrotada bat bota eta kipulea eta berakatzak bost minutuan izango doguz erregosten. Zanoia, pernila, babak eta tomate gehituko doguz. Su ezitan, ordu laurenean eukiko dogu egosten. Ardao zuria eta ur apur bat botako doguz. Kazuelari tapa jarri eta surtan beste ordu lauren baten izango dogu. Patata txikitu eta gehituko dogu. Patata eginda dagoanean, kazuela surtan itxiko dogu, su ezitan, saltsea apur bat loditu arte.



Ercoreca
supermerkatuak

Flikadura adituak



Amagoia Gezuraqa


- Galerna. I. Esnaola
- Xahmaran. J. Arretxe
- Gizakiaren minak. K. Linazasoro


–*Ttantiptiak*. M. Pavón
–*Pirata ausartak*. M. Murua
–*Nire neba jenioa*. R. Muñoz
–*Aurpegiko ubeldurak*. A. Kazabon

–Baldi. M. Oihenart-J. Zeberio
–20 hatz proiekt. I. Plaza & O. Garmen-
dia
–Zuzen. Zarama
–Bizitzari txistuka. Betagarri



7	1	4	8	9	6	5	2	3
9	3	2	4	1	5	7	6	8
6	8	5	7	3	2	1	4	9
8	6	1	2	7	3	9	5	4
4	2	3	1	5	9	8	7	6
5	9	7	6	8	4	2	3	1
2	4	8	9	6	7	3	1	5
3	7	9	5	4	1	6	8	2
1	5	6	3	2	8	4	9	7





Antzerkia eta filmak

Derio

- > *Prince of Persia*, aire zabaleko zinema. Abuztuaren 7an, 22:00etan, San Migel plazan.
- > *G-Force, licencia para espiar*, aire zabaleko zinema. Abuztuaren 21ean, 22:00etan, Sollube kalean.

Ikastaroak eta tailerrak

Sondika

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 7tik 13ra bitartean, liburutegian. Gidatze eraginkorra. Irailaren 25ean. Izena ematea: irailaren 7tik 10era bitartean, Kultura Etxean.
- > Antzerki tailerrean izena ematea: irailaren 7tik 13ra bitartean, liburutegian (12 urtetik 18 urtera bitartekoentzat).
- > Komunikazioa eta autoestimua ikastaroan izena ematea: irailaren 7tik 13ra bitartean, liburutegian.
- > Beira tindatua. Irailaren 11n, Gaztetean.
- > Metalezko eraztunak. Irailaren 24an, Gaztetean.

Zamudio

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 24ra arte.

Larrabetzu

- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 20tik 30era.

Irteerak

Zamudio

- > Besaide. Irailaren 19an, Arroeta taldeak antolatua.
- > Peña Lara, Cabeza hierro menor eta Cabeza hierro mayor. Irailaren 24tik 26ra bitartean, Arroeta taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Hondarribia-Oiartzun-Donostia. Irailaren 11n (jubilatuentzat). Izena ematea: irailaren 8ra arte, Gure Etxean.

Kirola

Zamudio

- > Zikloturista. Irailaren 18an, 11:30etik aurrera, Bidekoetxe parkean.



Lehiaketak

Sondika

- > Herritik bizikletaz ibili. Irailaren 19an, Gaztetean.

Zamudio

- > San Martin jaietako Kartel Lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna: irailaren 30a.

Bestelakoak

Txorierrri

- > Kilometroak eta Nafarroa Oinez jaietara joateko izena ematea: irailetik aurrera.

Sondika

- > Mugikortasun iraukoraren astea. Irailaren 22an, 17:00etatik aurrera: taillerak, paseoa bizikletaz...

Zamudio

- > Mugikortasun iraukoraren astea, irailan.
- > San Martin jaiak antolatzeke batzarra. Irailaren 21ean, 19:30ean, udaletxean.
- > Lau haizetara kontari umeentzako ekitaldia, Antton Irustaren eskutik. Irailaren 25ean, 11:30ean, liburutegian.



Boduazu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Auzoak, Auzoak, Auzoak

Auzoak, Auzoak, Auzoak

Auzoak, Auzoak, Auzoak

Auzoak, Auzoak, Auzoak



902 54 08 54

**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**










...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu. Berkeba alorretan hegazkin-motor
magetromaguetan, eta alorrekin ere CO₂ gutxiago erabiltzeko teknologia
erabiltzen dugu. Beraz, ingurumena zaintzeko gaitu gaitu. Gure enpresa
berriak teknologia berriak erabiltzen ditu. ITP Injekzioak, Ingurumen Alorreko Taldea
Integratua (jaki duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa) gara.
Ingurumeneko erantzukizunari erantzuteko, beraz, gaitu gaitu gaitu.
Beraz, gaitu gaitu gaitu.





BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Barru Garbaitza, nº23
48195 LEZAMA (BIZKAIA)
Tel. 94 455 50 53 / Fax. 94 455 52 45
e-mail: lora@lora-coop.net



www.lorra-coop.net